


Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren 5. edizioko uzta erreportaje sorta batean jasota

2016/02/29

Pasa den ikasturtean Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu tituluaren 5. edizioa eskaini zuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Orain, Goiena komunikazio taldeak bildu egin ditu aditu titulu hartan sortutako eduki aipagarrienak telebista-erreportaje sorta batean.



Aditu tituluaren 5. edizioko partaideak Aretxabaletako campusean.

Jon Berezibar Goienako kazetariak Goiena komunitateko blog batean bildu ditu EKTri buruz egindako erreportajeak. Gai, hitz-gako eta kontzeptuen arabera antolatuta, Arrasateko kazetariak jaso ditu sei ataletan ikastaroan parte hartutako aditu eta arituen hausnarketak. Oso jatorri eta jarduera desberdineko lagunak daude elkarriketatuen artean: sortzaileak, politikariak, pentsalariak...

1. Olatua berrasmatu.
2. Zama hegalduna.
3. Hilzori-gogobizi.
4. Mina eta grina.
5. Ertzak batuz.
6. Egin arte (ez gara izango).

Erreportaje horiek guztiak bilduta daude EKT-k Goiena komunitatean sortutako blogean.